

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN SEKTOREA (IKT). 2008. urtea

IKTen sektoreak Euskal AEko BPGaren % 3,9 sortu zuen 2008an

Aurreko urtearekiko balio erantsia % 5,2 hazi zen, sektore guztien osokoa baino puntu bat pasa gehiago

Eustaten datuen arabera, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sektoreak 2.299 enpresa eta 25.454 pertsona landunekin, Euskal AEko BPGaren % 3,9 sortu zuen 2008an. Enpresa hauek eta bertako langileak Erkidego osoaren % 1,3 eta % 2,5 dira, hurrenez hurren.

Gainera, sektore honek 5.675,1 milioi euroko negozioen zifra lortu zuen eta balio erantsiaren terminoetan 2.410,4 milioi euroko aberastasuna sortu zuen 2008an, aurreko urtearekiko % 5,2 hazita.

1. taula: IKT sektorearen magnitude nagusien eboluzioa, lurraldeko eta jarduera sektoreko 2007-2008

	Enpresa kopurua			Landun kopurua			Negozio kopurua (1)			Balio erantsia (1)		
	2007	2008	Δ %	2007	2008	Δ %	2007	2008	Δ %	2007	2008	Δ %
Sektoreak guztira	184.290	182.154	-1,2	1.015.038	1.018.153	0,3	.	.	.	59.349,6	61.706,5	4,0
IKT sektorea guztira	2.376	2.299	-3,2	25.150	25.454	1,2	5.200,6	5.675,1	9,1	2.291,5	2.410,4	5,2
Lurralde historikoa												
-- Araba	335	327	-2,4	2.487	2.511	1,0	735,6	793,4	7,9	260,7	270,8	3,9
-- Bizkaia	1.384	1.323	-4,4	14.482	14.934	3,1	2.866,8	3.102,4	8,2	1.340,4	1.424,2	6,3
-- Gipuzkoa	725	711	-1,9	8.181	8.009	-2,1	1.598,2	1.779,3	11,3	690,4	715,4	3,6
TIC sektorea												
Industria	205	211	2,9	7.227	6.962	-3,7	1.038,9	1.217,5	17,2	393,5	414,3	5,3
Serbitzuak	2.171	2.088	-3,8	17.923	18.492	3,2	4.161,7	4.457,6	7,1	1.898,0	1.996,1	5,2

(1) milioika eurotan

Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) industria


IKT sektorean I+G egiten duten eta berritzaileak diren enpresen proportzioa gainerako sektoreetakoa baino askoz handiagoa da.

IKT sektorean enpresen % 9,0k I+G jarduerak egiten ditu, gainerako sektore guztietakoa (% 0,8) baino askoz ehuneko handiagoa da hau. Gainera, sektore hau enpresa guztien % 1,3 besterik ez den arren, I+G egiten dutenen % 13,6 dira eta 99,0 milioi euroekin enpresa guztien barne I+Gko gastu osoaren % 9,7 egiten dute.

Sektore honetan I+Gn aritzen diren langileei dagokienez, 2008an 1.598 ziren lanaldi osoan ari zirenak eta horietatik 380 (% 23,8) emakumeak ziren.

Enplegu honetan gehiago sakonduz gero, esan beharra dago sektore honetan 829 ikertzaile aritu zirela lanaldi osoan eta horietatik 195 (% 23,5) emakumeak ziren.

1. grafikoa: I+G+b IKT sektoreko enpresetan eta sektore guztietan 2008an. (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) industria

Berrikuntzari dagokionez, I+Gn bezala, alde nabariak daude gainerako sektore guztien eta IKTkoaren artean. 2008an IKT sektoreko establezimenduen % 35,6 berritzaileak izan ziren eta gainerako sektore guztien % 15,0 ere bai. Enpresaren neurria kontuan hartuz gero, 10 langile eta gehiagokoetan % 57,9ra iritsi ziren lehenengo kasuan eta % 31,5era gainerako sektore guztietan.

Berrikuntzan egindako gastuari dagokionez, IKT establezimenduek 225,6 euro bideratu zituzten berrikuntzara, guztiaren % 8,1. Gastu honetatik 212,5 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduei zegozkien, hau da, neurri horretan gastatutako guztiaren % 9,7.

Berrikuntzan eta I+G arloan gastatutako zifrak eta negozioko zifrak (berrikuntzako eta barne I+Gko intentsitate ratioak) alderatuz gero, argi geratzen da IKT sektoreak I+G+b baliabideetarako proportzio handiagoa erabili zuela gainerako sektoreek baino.

2. taula: IKT sektorearen barne I+G eta berrikuntza intentsitatea lurraldeko, jarduera sektoreko eta enplegu estratuko. 2008. urtea


	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia
Sektoreak guztira	1,6	0,7	1,9	1,0
IKT sektorea guztira	5,2	2,9	5,5	3,1
Lurralde historikoa				
-- Araba	3,3	1,5	3,7	1,7
-- Bizkaia	4,5	2,4	4,6	2,5
-- Gipuzkoa	7,2	4,2	8,3	4,9
TIC sektorea				
Industria	5,7	3,6	5,6	3,7
Serbitzuak	5,0	2,5	5,5	2,8

Source: Eustat. Information and Communication Technologies (ICT)

IKTen erabilera eta merkataritza elektronikoa orokortuago daude IKTen sektorean gainerako sektore guztietan baino

Sektore honetako enpresetan IKT teknologiak asko erabiltzen dira eta merkataritza elektronikoa ere beste sektoreetan baino gehiago erabiltzen den arren, ez dago oso ezarrita, bereziki salmenten atalean. Bitarteko honen bidez erosi zuten establezimenduak % 43,1 izan ziren eta saldu zutenak % 12,9, eta gainerako sektore guztietan % 13,9 eta % 3,4 izan ziren, hurrenez hurren.

2. grafikoa: IKT teknologien erabilera 2008an (%)




Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) industria

Bestalde, IKT sektoreak ondasunen kanpoko sektorean ez du eragin esanguratsurik. 20.279 milioi euroko guztizko esportazioetatik 220 milioi euro IKTenak izan ziren eta 20.118 milioi inportazioetatik 496 milioi izan ziren IKTenak.

Truke hauetako produkturik ohikoenak osagai elektronikoak izan ziren, bai esportazioetan eta bai inportazioetan; % 47 eta % 45, hurrenez hurren.

Azkenik, Euskal AEko IKTen sektorea eta Estatu osokoa alderatuz gero, 10 langile eta gehiagoko enpresetan zenbait alde daude aipatutako adierazle bakoitzean. Enpresa berritzaileen eta berrikuntzako intentsitatearen ehunekoak handiagoak dira Euskadin, aldiz, merkataritza elektronikoan Estatuak ehuneko handiagoak ditu. IKT teknologien erabilerari dagokionez, lortutako ehunekoak antzekoak dira.

3. grafikoa: Euskal AEko eta Espainiako 10 langile eta gehiago enpresen konparazioa 2008. (%)



Iturria: EUSTAT eta EIN.

Ohar metodologikoa:

IKT sektorean batez ere IKTen garapena, ekoizpena, merkaturatzea eta erabilera intentsiboa egiten duten manufakturetako eta zerbitzuetako sektoreak daude.

IKTen sektorea ELGAk hartutako irizpideen arabera definitzen da eta informazioaren eta komunikazioaren industriarekin erlazioa duten industria eta zerbitzuen alorreko jardura ekonomikoak sartzen dira. EJSN93 Rev. 1.ean sektore honetako jardura hauek daude: 3001, 3002, 3130, 3210, 3220, 3230, 3320, 3330, 5160, 5167, 6420, 7133, 7210, 7221, 7222, 7230, 7240, 7250 eta 7260.

Eragiketa estatistiko hau Eustaten inkesta hauetatik ateratako informazioarekin egin da:

- Jarduera ekonomikoen gidazerrenda
- Kontu ekonomikoak
- Industria estatistika
- Beste zerbitzuen inkesta ekonomikoa
- Ikerketa zientifikoaren eta garapen teknologikoaren gaineko inkesta (I+G)
- Berrikuntza Teknologikoko Inkesta, BTI.
- Informazioaren gizarteari buruzko inkesta enpresetan.
- Kanpo merkataritzaren inkesta

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxe: +34-945-01 75 01

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) Sektoreari buruzko prentsa-ohar gehiago.